

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Epea ireki da ikastetxeetan esnea banatzeko diru-laguntzak eskatzeko

*EBek oso-osorik finantzatuta, aurtengo ikasturtean 21 astetan zehar burutuko da*

Osteguna, 2019.eko urtarrilak 10

Nafarroako Gobernuak epea ireki du ikastetxeetan esnea banatzeko diru-laguntzak eskatzeko. Programa oso-osorik Europar Batasunak finantzatzen du, eta Haur Hezkuntzako 2. zikloko eta Lehen Hezkuntzako ikasleentzat izango da. Aurtengo ikasturtean, 21 astetan zehar burutuko da.

Horrela jasotzen da Landa Garapen, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendari nagusiak emandako ebazpenean; ebazpena gaur argitaratu da [Nafarroako Aldizkari Ofizialean](#). Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan esnea banatzeko baimendutako hornitzaileek laguntza horiek eskuratu nahi badituzte, eskaera 10 eguneko epean aurkeztu ahal izango dute; hots, urtarrilaren 24ra bitarte.

Onuradunak eskusiboki hautatuko dira 2018/2019 ikasturterako parte-hartzeko adierazpena aurkeztutako erakundeen artean.

Esnea banatuko zaie Hezkuntza Departamentuak hautatutako 80 ikastetxeko gehenez Haur Hezkuntzako 2. zikloko 4.500 ikasleri eta Lehen Hezkuntzako 7.500 ikasleri. Planaren helburua da ikasleei anoa bat edo bi esne oso ematea; hau da, termikoki tratatua, litro 1eko edo gehiagoko ontzietan. Ikasleko 0,20 litro esne banatuko da Haur Hezkuntzako ikasleen kasuan eta 0,25 litro Lehen Hezkuntzakoei dagokienean, betiere kontuan hartuta, laktosarekiko intolerantzia duten ikasleak. Esnearen lehen banaketarekin, banatzaileek polipropilenoazko plastikozko edalontzi berrerabilgarriak banatuko dizkie ikastetxeei.